



## GASTROSKOPIAK

---

### Zertan datza proba?

Sabelaren barrualdea ikustean datza, ahotik sartzen den zunda (endoskopikoa) baten bidez. Proba hau sedaziopean egiten da.

### Nola prestatu behar da proba?

Baraurik egon behar da proba egin baino 7 ordu lehenagotik.

Proba egin aurreko gauean, haurrak arin samar afaldu ahal izango du. Ondoren, ospitalera joan baino bi ordu lehenago ura hartu ahal izango du. **ESNERIK EZ.**

Haurrak mugitzen duen hortz bat badu, pediatriako unitatean hartuko duen erizainari abisatuko diozu.

Haurrek ezin dute egun horretan ukipen-leiarrik, azazkaletako esmalterik edo gorputzeko kremarik/makillajerik eraman

Gomendagarria da haurrak arropa eroso eta bitxi/osagarririk gabea eramatea.

Haurrak medikazioa ohikotasunez hartzen badu, ez da beharrezkoa bertan behera uztea, ur-zurrapada batekin har dezake.

Zure semeak 5 eta 9 urte bitartean baditu, ospitalera joan baino ordubete lehenago EMLA krema eman beharko zaio besoetako bi tolesturetara (jarraitu EMLA KREMA orriko jarraibideak).

### Non egingo duzue proba?

Haurra Pediatriako Eguneko Ospitalean sartuko da, 1. B puntuan. Harrera-protokoloa egin ondoren:

- Haurra 9 urtetik beherakoa bada, larrialdietako ebakuntza-gelan egingo diote proba, 1. D-n.
- Haurra 9 urtetik gorakoa bada, proba egingo diote 7. D-ko proba funtzionalen unitatean.

Probaren ondoren, Pediatriako Eguneko Ospitalera itzuliko da, erabat sendatu arte.

Proba eskatu duen medikuak emango dio emaitzen berri. Hitzordua erantsi da.

Proba programatutako egunean egiterik ez baduzu, garrantzitsua da Pediatriako Idazkaritzari jakinaraztea (Txagorritxu Ospitaleko telefonoa: 945007000).